

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 6 milioi euro emango dizkie Foru Komunitateko zentro teknologikoei

Erakunde horiek taldean eskatu beharko dute laguntza, eta aurkezten duten ekintza-planaren arabera emango da.

Martes, 01 de abril de 2014

Nafarroako Gobernuak 5.950.000 euro emango ditu 2014an Nafarroan dauden zentro teknologikoak eta ikerketa-zentroak gaitu, finkatu eta zentroen arteko lankidetzak sustatzeko, gaurko NAOan argitaratu den [laguntzaren deialdiaren](#) arabera (62. zk., apirilak 1).

Zentro teknologikoentzako laguntzen esparru berri bat ezarri da, laguntza ekonomikoak zentroen bikaintasun- eta espezializazio-maila areagotu dezaten, enpresei prestatzen dizkieten zerbitzuak ugaritu daitezten eta, aldi berean, enpresek zentroen jardueretan parte hartu dezaten, nazioarteko zentroen lehiakortasuna hobetu dadin, Europako finantzazioen deialdietan sartzeko aukera handiagoa izan dezaten, eta oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen sorrera sustatu dadin.

Laguntzaren deialdian parte hartu ahal izateko, interesa duten zentroek baterako ekintza-plan bat aurkeztu behar dute Nafarroako Gobernuan. Plan horretan bi zentro teknologikok edo gehiagok parte hartu beharko dute, elkarlanean jardunda. Taldean parte hartzeko moduaren bidez zentroek, batak bestearekin, lankidetzak eta koordinazio-konpromisoak hartzea lortu nahi da, hainbat sektore barne hartuta, Nafarroako Garapen Ekonomikoaren Planean azaltzen denari jarraiki.

Laguntzaren bidez zentroak gaitzeko eta sendotzeko, eta zentroen arteko lankidetzak eta koordinazioa bultzatzeko ekintza-planean jasotzen diren jardueren % 100 ere finantzatu ahal izango da. Gaitzeko jarduerekin batera, hau da, bikaintasuna eta espezializazioa areagotzera bideratutako jarduerekin batera, zenba daitezkeen helburu teknikoak, lan-plan bat eta aurrekontu elkartu bat aurkeztu beharko dira. Zentroak finkatzeko eta euren arteko lankidetzak eta koordinazioak sustatzeko jardueren kasuan, taldeko zentro guztientzako estrategia bateratu bat, lan-plana eta aurrekontua aurkeztu beharko dira.

Funtsak hainbat irizpideren arabera banatuko dira. Gaitzeko ekintzei 40 puntu emango zaizkie gehienez, eta zentroak finkatzeko eta euren arteko lankidetzak eta koordinazioak sustatzeko ekintzei 30 puntu gehienez. Nafarroako Garapen Planeko sektore estrategikoekin bat eginez gero 15 puntu ere lor daitezke, eta laguntza eskatzen duten zentroen taldeen tamainaren arabera ere 15 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Eskaerak apirilaren 16ra arte aurkeztu ahal izango dira eta Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiko Berrikuntzarako eta Ezagutzaren Transferentziarako Zerbitzuak

ebaluatuko ditu. Zerbitzu hori arduratuko da, baita ere, ondoren ekintza-plana betetzen dela ziurtatzeaz.

Laguntza Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatu da, Nafarroako 2007-2013ko EGEF programa eraqilearen bidez.